



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko ekainaren 4a

81. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-24/ITP-00015. Interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen kalitate demokratikoari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (3. or.).
- 11-24/ITP-00016. Interpelazioa, nekazaritza eta abeltzaintza Europarako sektore estrategiko gisa kokatzeko politika orokorrari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (4. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- 11-24/POR-00210. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko telefonistak C mailan sartzeari buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00211. Galdera, Siemens Gamesako lanpostuak murrizteari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (5. or.).
- 11-24/POR-00212. Galdera, Donapea planari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00213. Galdera, Iruña-Zaragoza aldirietako trenari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/POR-00214. Galdera, Siemens Gamesaren Nafarroako langileei buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00215. Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuetara sartzeko merezimenen balorazioari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (7. or.).
- 11-24/POR-00216. Galdera, desgaitasunaren baloraziorako ekipoei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00218. Galdera, trantsizio berdeak Nafarroako produkzio-sektorean eta langileengan izanen dituen ondorioei buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (8. or.).
- 11-24/POR-00219. Galdera, Europako berdintasun-politikei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (9. or.).

- 11-24/POR-00220. Galdera, Eskubide Sozialen Europako zutabeak gure erkidegoarentzat, gure herrialdearentzat eta Europar Batasun osoarentzat duen garrantziari buruzkoa. María Olga Chueca Chueca andreak egin du (9. or.).
- 11-24/POR-00222. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko funtsei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00223. Galdera, Foru Erkidegoan indarkeria polizialaren eta eskuin muturreko taldeen biktimak aitortzeari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (10. or.).
- 11-24/POR-00224. Galdera, nekazarien eskaerei eta Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatuegi bideragarritasunari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00225. Galdera, Europak Nafarroarentzat duen garrantziari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00226. Galdera, Osasuneko kontseilaria aukeratzeari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00199. Galdera, Ablitasko Kontserbazio Bereziko Eremuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (14. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (14. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-24/ITP-00015. Interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen kalitate demokratikoari buruzkoa**

### *AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako interpelazioa, Nafarroako Foru Komunitatearen kalitate demokratikoari buruzkoa.
2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.
3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariarentzako interpelazioa aurkezten du.

### Zioen azalpena

Europako Gobernantzaren Liburu Zuriak EBn kalitate demokratikoa hobetzea bilatzen du; hartara, gardentasuna, kontu-ematea, efizientzia, herritarren parte-hartzea eta estatukoak ez diren eragileak tartean sartzea sustatzen du. Printzipio horiek Europar Batasun demokratikoagoa sortzen laguntzen dute, non herritarrak konektatutago eta erakundeek ordezkaturata sentituko baitira.

Gainera, Batasunak oinarrizko balio ditu gizakia- ren duintasunaren begirunea, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, zuzenbide-estatua eta giza eskubideen errespetua, gutxiengoetako pertsonen eskubideak ere barnean direla. Nafarroako Foru Komunitatea zeharo identifikatzen da balio horiekin.

Hori dela eta, Nafarroako Foru Komunitatearen kalitate demokratikoari buruzko interpelazioa aurkezten diogu Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## 11-24/ITP-00016. Interpelazioa, nekazaritza eta abeltzaintza Europarako sektore estrategiko gisa kokatzeko politika orokorrari buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako interpelazioa, nekazaritza eta abeltzaintza Europarako sektore estrategiko gisa kokatzeko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du:

Interpelazioa, nekazaritza eta abeltzaintza Europarako sektore estrategiko gisa kokatzeko politika orokorrari buruzkoa.

Kokatze horrek funtsezko lehenbiziko eragin bat izanen luke: gure landa-eremuen mantentzearen landa-egitura soziala eta horien erakargarritasuna indartzea. Landa-eremuetan, zazpi lanpostu mantentzen dira familia-ustiategi bakoitzeko. Sektore hori estrategikotzat jotzearen beste ondorio garrantzitsu bat da ondorio positiboak izanen lituzkeela lurrari, biodibertsitateari eta klima-aldaketari dagokienez.

Lehen sektoreko jarduerak oso errotuta daude Europako gizarte- eta ekonomia-sarean, eta ia landa-eremu guztietan daude, halako moduan non ekoizpen-sistemen aniztasun zabala eskaintzen baitute tokiko testuinguruen eta testuinguru geografikoen arabera. Lehen sektoreak ekarpen nabarmena egiten dio Europako ekonomiari, ia 400.000 milioi euro urtean, 10 milioi pertsonentzako lanpostu zuzenak sortzen ditu eta 70 milioi pertsonaren lana zeharka babesten du, batez ere landa-eremuetan.

Europar, elikagaien industria da manufaktura-industriaren jarduera nagusia, bere balioa 1.121.000 milioi eurotik gorako negozio-zifrekikoa da, eta manufaktura-industriaren % 14,3 ordezkatzen du. Guztira, 294.000 enpresa dira, lana 4,62 milioi pertsonari ematen diotenak, enpresa txiki eta ertainek elikagaien sektorearen negozio-zifren % 39,4 egiten dute, bai eta sortzen dituen lanpostuen % 57,7 ere.

50 langile baino gutxiagoko ETEak dira enpresa horien % 95,8 50, eta % 80,7k 10 langile baino gutxiago dituzte. Oro har, 10 enpresatik 9 familia-enpresak dira. 50 langile baino gutxiagoko ETEak dira enpresa horien % 95,8 50, eta % 80,7k 10 langile baino gutxiago dituzte. Oro har, 10 enpresatik 9 ETEak dira.

Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenak eta elikagaien ekoizpenak dira, orobat, landa-eremuek EBren balantzari egindako ekarpen handiena. Oro har, Europar Batasuna autosufizientea da animalia-jatorriko produktuei dagokienez, eta merkatu globaletan saltzen du (19.500 milioi euro). Txerri-haragiaren, esnekien, hegazti-haragiaren eta arrautzen esportatzaile garbia da. Nazioarteko ingurune konplexuago batean, ezinbestez mantendu behar da abeltzaintza-sektore dinamiko bat, Europako landa-eremuei ez ezik, Europa osoari ere mesede egiten baitio, nekazaritza-sektoretik harago.

Ezin dugu gauza bera esan landare-jatorriko elikagaien autosufizientziari buruz, eta gaur egun ezinbestekoa dugu hirugarren herrialdeetako elikagaiekiko mendekotasunik eza.

Erronka horiek guztiek osagai juridiko bat dute, eta Merkataritzari eta Aduanako Tarifei buruzko Akordio Nagusian erregulazio-hutsuneak daude oraindik ere; hori dela-eta, ezinezkoa da ispiluklausulak aplikatzea, Europako nekazariak eta abeltzainak ekoiztako produktuen berme berberak izan ditzaten inportatutako elikagaiek.

Hortaz, premiazkoa da sektore estrategiko gisa kokatzea ez soilik maila intelektualean, ezpada NPBren arudian ere.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/POR-00210. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko telefonistak C mailan sartzeari buruzkoa***MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko telefonistak C mailan sartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garridok, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak ba al du Nafarroako Arartekoaren eta INAIren gomendioak betetzeko asmorik? Izan ere, Nafarroako Osasun Zerbitzuko telefonistak C mailan sartzera premiatzen dute, telefonista-ofizialaren profilarekin sartu ere.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 22an

Foru parlamentaria: Miguel Garrido Sola

**11-24/POR-00211. Galdera, Siemens Gamesako lanpostuak murrizteari buruzkoa***LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, Siemens Gamesako lanpostuak murrizteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagastik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Maiatzaren 28an jakin zen Siemens Gamesa enpresak bere langileei jakinarazi diela 4.100 enplegu murriztuko dituela munduan zehar dituen lantegietan –horietarik 430, Espainiako estatuan–; ez zuen esan, ordea, enplegu-suntsitze horrek zer eragin izanen duen Nafarroako Foru Komunitateko lantegietan.

Nafarroako Gobernuak zer egingen du Siemens Gamesa enpresan inongo lanposturik ez sunsitzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

---

## 11-24/POR-00212. Galdera, Donapea planari buruzkoa

*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galdera, Donapea planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer iritzi diozu 5.000 etxebizitza –horietako 2.500, gutxienez ere, babestuak– sortzen ahalko dituen Donapea plana azkartzeko beharrari?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

---

## 11-24/POR-00213. Galdera, Iruña-Zaragoza aldirietako trenari buruzkoa

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Iruña-Zaragoza aldirietako trenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakariaren ustez, kalitatezko zerbitzu publikoa al da Iruña-Zaragoza aldirietako trena, zeinean bidaiariek zutik egin behar baitute bidaia?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## 11-24/POR-00214. Galdera, Siemens Gamesaren Nafarroako langileei buruzkoa

*ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, Siemens Gamesaren Nafarroako langileei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ana Elizalde Urmeneta andreak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko lehendakariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2023ko urrian Siemens Gamesa enpresak berregituratuko zela iragarri zuenetik –horrek enpleguan izanen duen eragina zehaztu gabe ordea–, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari galdetzen ari gatzazkio ea Nafarroako Gobernua zer egiten ari den horrek enpleguan izanen duen eragin negatiboa minimizatzeko.

Enpresak 2024ko maiatzaren 28an iragarri du enplegua berregituratuko duela, eta Espainian 430 langileri eraginen diola berregituraketak; kon-tuan hartuta Siemens Gamesak 1.800 langile dauzkala Nafarroan, honako hau galdetzen diogu lehendakariari:

Zer ari da egiten Nafarroako Gobernua Siemens Gamesak Nafarroan dituen langileen enpleguari begira horrek izanen duen eragin negatiboa minimizatzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

## 11-24/POR-00215. Galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuetara sartzeko merezimenduen balorazioari buruzkoa

*ENKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuetara sartzeko merezimenduen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Osoko Bilkuran honako galdera honi ahoz erantzun diezaion.

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak, martxoaren 15an Nafarroako Parlamentuan egindako agerraldian, azaldu zuen Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak eskuratzeko eta hornitzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen Foru Dekretua lehenbailehen onartzeko ahaleginak egingo zirela.

Zer asmo du Nafarroako Gobernuak, Administrazio Publikoetako lanpostuak eskuratzeko eta hornitzeko merezimenduen balorazioa arautzen duen Foru Dekretua onar dadin?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

---

## 11-24/POR-00216. Galdera, desgaitasunaren baloraziorako ekipoei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, desgaitasunaren baloraziorako ekipoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaioten:

Desgaitasuna baloratzeko ekipoak noiz eta zenbat pertsonarekin handituko dira eta aparteko zer baliabide jarriko dira ekipo horien eskura, legeak ezartzen duen 6 hilabeteko epea betetzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

---

## 11-24/POR-00218. Galdera, trantsizio berdeak Nafarroako produkzio-sektorean eta langileengan izanen dituen ondorioei buruzkoa

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, trantsizio berdeak Nafarroako produkzio-sektorean eta langileengan izanen dituen ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikita dagoen Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak ekainaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aztertu al duzue zer ondorio izanen dituen trantsizio berdeak Nafarroako produkzio-sektorean eta langileengan?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román



**11-24/POR-00219. Galdera, Europako berdintasun-politikei buruzkoa***KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, Europako berdintasun-politikei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, 2024ko ekainaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusirik Europako politikan gorroto-diskurtsoak gero eta ugariagoak direla eta LGTBI berdintasun-politikekiko eskuin muturraren negazionismoa, zeinak, hedaduraz, Espainian eta Nafarroan era gertatzen baitira,

Arriskuan al daude Europan berdintasun-politikak?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

**11-24/POR-00220. Galdera, Eskubide Sozialen Europako zutabeak gure erkidegoarentzat, gure herrialdearentzat eta Europar Batasun osoarentzat duen garrantziari buruzkoa***MARÍA OLGA CHUECA CHUECA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Olga Chueca Chueca andreak egindako galdera, Eskubide Sozialen Europako zutabeak gure erkidegoarentzat, gure herrialdearentzat eta Europar Batasun osoarentzat duen garrantziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Olga Chueca Chueca andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak 2024ko ekainaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Europako hauteskundeak laster izanen baitira, zergatik da hain garrantzitsua Eskubide Sozialen Europako zutabea gure erkidegoarentzat, gure herrialdearentzat eta Europar Batasun osoarentzat?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 30ean

Foru parlamentaria: Olga Chueca Chueca

## 11-24/POR-00222. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko funtsei buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren fasea finantzatzeko funtsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak ekainaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Noiz gaituko dira funtsak Nafarroako Ubidearen bigarren fasea lizitatzeko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 2an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/POR-00223. Galdera, Foru Erkidegoan indarkeria polizialaren eta eskuin muturreko taldeen biktimak aitortzeari buruzkoa

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Foru Erkidegoan indarkeria polizialaren eta eskuin muturreko taldeen biktimak aitortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

nak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, bigarren lehendakariorde eta Nafarroako Gobernuako Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak ekainaren 6ko Osoko Bilkuran (osteguna) erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak indarkeria polizialaren eta eskuin muturreko taldeen biktimei egindako lehenbiziko 12 aitortza egin zituen iragan ostegunean. Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekin-tzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea oinarri. Zer balorazio egiten duzu ekitaldi horretaz?

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jau-

## 11-24/POR-00224. Galdera, nekazarien eskaerei eta Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiaren bideragarritasunari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako gaurkotasun handiko galdera, nekazarien eskaerei eta Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiaren bideragarritasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Vox Nafarroa foru parlamentariaren elkarteari atxikita dagoen María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko du zure gobernuak nekazarien eskaerei erantzuteko eta Nafarroako nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiaren bideragarritasuna bermatzeko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

## 11-24/POR-00225. Galdera, Europak Nafarroarentzat duen garrantziari buruzkoa

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak egindako gaurkotasun handiko galdera, Europak Nafarroarentzat duen garrantziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari María Chivitek 2024ko ekainaren 6ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer garrantzi du Europak Nafarroarentzat?

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

## 11-24/POR-00226. Galdera, Osasuneko kontseilaria aukeratzeari buruzkoa

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako gaurkotasan handiko galdera, Osasuneko kontseilaria aukeratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren ele-dun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik uste duzu aukeratu zintuztela Nafarroako Gobernu Osasuneko kontseilari izateko?

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

## 11-24/PES-00199. Galdera, Ablitasko Kontserbazio Bereziko Eremuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Ablitasko Kontserbazio Bereziko Eremuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko maiatzaren 3ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatzizko erantzunerako galdera egin du, (11-24/PES-00199) Los Borja I eta II eguzki-planta fotovoltaikoak izen bereko parke eolikoekin hibridatzeko izapidetzea dela-eta Ingurumen Departamentuak hartuko dituen neurriei buruzkoa. Hori dela-eta, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak honako hau jakinarazten du:

"Los Borjas I eta II" eguzki-planta fotovoltaikoak Nafarroako Foru Komunitatearekin mugakide diren lursailetarako proposatzen dira; eta bereziki,

mugakideak "Peñadil, Montecillo eta Monterrey" kontserbazio bereziko eremuarekin eta izen bereko estepa-abifaunaren kontserbaziorako kritikoa den zonarekin.

Horregatik, eta planta horietarako Zaragozako Industria, Lehiakortasun eta Enpresa-garapeneko Zerbitzu Probintzialak eginiko aurreiazko administrazio-baimenerako eta eraikitze-baimenerako eskabidea jendaurreko informazioan paratzeari dagokionez, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek egokitzen jo zuen aipatu zerbitzu probintzialari jakinaraztea, 2024ko martxoaren 8an, planta horiek eraikitzearen aurka zegoela, ingurumen aldetik bideraezin irizteagatik haiei, bertako estepa-espezieengan muntazko ingurumen-eraginak izan zitzaizketelako; eta, espezie horiek elementu giltzarri izanik "Peñadil, Montecillo eta Monterrey" kontserbazio bereziko eremua izendatzeko, aipatu eraginek kontserbazio bereziko eremuaren kontserbazio-egoera ere uki zezaketelako.

Los Borja I eta II eguzki-planta fotovoltaikoen izapidetzea Zaragozako Industria, Lehiakortasun eta Enpresa-garapeneko Zerbitzu Probintzialari dagokio. Berak jasoko ditu planta horien proiektuei aurkezten zaizkien txosten eta alegazio des-

berdinak, eta berak ebatzi behar du, kasua bada, haien ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa.

Bi proiektu fotovoltaikoen izapidetzearen une honetan, Nafarroako ingurumen-administrazioak ez du baliabide gehiagorik goian adierazitako txostena jaulkitzeaz haragokorik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrek erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko irailaren 5eko 17:30era arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko ekainaren 3an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrek erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2024ko irailaren 5eko 17:30era arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioetako eta foru parlamentarien elkarteko eledunei jakinaraztea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko ekainaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



